

BUJANDA, Joxemanuel: «Euskara eskolan eraiki nahi zuen euskal pedagogo aurrerakoia: Agustin Pascual Iturriaga», Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), Bilbo, 1991. 272. orr.

Joxe Manuel Odriozola
Euskal Herrian Euskaraz-eko kidea

Biziki liburu jakingarria da Bujandaren eskutik datorren hau. Lehendik ere bagenuen Iturriagaren berri, artikulua erako idazlanak direla medio. Batek baino gehiagok jo zuen begiz Hernaniko pedagogo handia. Eta ez da gutxiagorako: egin zituen gauzak egin izanak nabarmenkiro erakartzen baitu euskal irakaskuntzaren historiaren kezka izpirik duen edonor. Ongi etorri beroa, hortaz, orain Bujandaren ekarpen honi; gainera, aurreko lan-aipamenak ez bezala, liburu oso-betea eskaini baitio euskaltzale liberal zorrotz hari.

Garai hartako (1778-1851) euskal historiaren testuinguru zabalean kokatzen digu egileak Iturriagaren nondik-norakoa. Eskertzekoa da, alajaina. Horrela ez izatekotan, izan ere, Iturriagaren irudia eta ekarpena nekez atzematen baita bere osotasunean. Liburuak, beraz, garapen zabala du bere atalez-ataleko egiturari. Ordena honi darraio atalegitura hori, aurkibidean ageri zaigun gisara: «Iturriaga, euskal pedagogiaren alorrean aurrelari eta gidari»; «Muñagorri eta karlistak: Furoak eta Pakea»; «Agustin Pascual Iturriagaren idazlana: zenbait iritzi»; «Garaiko irakaskuntzari buruz zerbait»; «Euskara eskolan eta gizartearen eraiki nahi izan zuen pedagogo aurrerakoiaren aurrez aurre

bere helburu eta jarreraren garrantziaz»; «Hizkuntz irakaskuntzarako proposaturiko metodoen eskola-tresnak»; «Iturriagaren nortasun pedagogikoa hobeki ezagutzeko erabil ditzakegun dokumentuak»; «Eranskinak».

Euskal liberalismoak bere altzotik sortarazi dituen artean dago Iturriagaren irudi distiratsua. Bujandaren hitzok aldatuko ditugu hona irudi hori zehatzago zirriboratzeko: «Sasoi zail eta nahastu haietan bai Iturriagak, bai Muñagorrik argi eta garbi zituzten beren helburuak ez batzuekin eta ez besteekin (alegia ez liberalekin guztiz bat, ezta karlistekin adostasun osoan ere), Foruak eta Bakea baizik. (...) Ohar bedi halaber bihotzeko foruzale askorik bazela liberalen artean ere. Ez ziren, ez (inoiz inon izan ez diren bezala) gauzak erabat zuriak, bate-tik, eta zeharo beltzak bestetik, onak eta txarrak, haiek euskaltzaleak eta hauek euskal foruen apurtzaileak, batzuk euskaldun finak eta besteak traidore hutsak ...».

Bujandarengan lilura sortzen duen Iturriagaren ezaugarri bakarra ez da soilik honen Euskal Herriarekiko lotura sakona. Kualitate horri beste hau erantsi behar baitzaio orobat: «Gizon jakituna zen, asko zekien, zeren bai Espainian eta bai Europan idazten zenaren berri zeukan, baina batez ere maisutarako dohain bereziak zituen». Irakaskuntzarako dohainez horniturik zegoen hernaniar honek ez zion entzungor egin bere ingurumarian euskal eskolaumearekin gertatzen ari zenaz. Eskolaren eginkizuna, jantzigarri eta nortasun-garapenaren habi izan ordez, kengarri eta zapuzgarri zelakoan zegoen; kengarria diogu, eta ondo diogu, eskolaumeen euskara-gaitasuna garatu ordez hizkuntza hori eza-batu egiten baitzen hezkuntza sistematik.

Elebitasun kengarriaren hastapenak ditugu euskal eskolaren kondaira hitsean. Bidegabekeria horren aurrean Iturriagaren heziera elebidunaren eredu daukagu; eredu hori, jakina, gaur ez bezalako oinarri soziolinguistikoetan sostengatzen zen. Ikus dezagun, bada, zehatz-mehatz zertan zetzan eredu haren bizkarrezurra Bujandaren iritzirako: «Iturriaga euskaraz arduratua zen -badirudi irakaskuntzako esperientziak beharturik, pedagogiazko hutsune nabarmena aurkitu ondoren haur euskaldunen erdal heziketan- eta eskolak euskararen iraupenerako duen garrantziaz konturatu zen». Zehaztaperen bide honetan, are xehekiago irudikatuko digu Bujandak, Iturriagaren eredu berezia. Ama-hizkuntza eta xede-hizkuntzaren arteko zubitizat planteatu omen zuen euskararen betekizuna, ondorengo lerrook dioskutena egia izatekotan: «Iturriagak ez zuen onartzen beren «ama-hizkuntza» (euskara) egiten zuten haurrei, gehiengoaren hizkuntza ofizialean (gaztela-

nia) derrigorrez irakastea eta beste bide bat proposatu zuen: euskaratik hasi, euskaraz irakurtzen eta idazten euskaldun haurrei irakatsi eta gero euskararen bidez baita ere erdara irakatsi». Pasarte honetan, halere, zalantzatxo bat daukagu: «gehiengoaz» ari zaigu Bujanda, hori espainola bailitzan, eta ez da oso erraz ulertzekoa orduko testuinguru historikoan gehienak erdaldunak izatea. Ez Hernanin, ez Euskal Herriko eremu luze-zabaletan.

Bujandak ongi dioen bezala, «orduko hura, azken batean, gaztelaren zerbitzuan jartzea» zenez, ez zaigu baliagarri egungo egunean. Guztiarekin ere, Iturriagaren papera ezin dugu orduko baldintzapean zehatzetik landa balioetsi. Hura ere, ezinbestez, garaiko semea, eta garaiko mugen mendeko. Eta garaiko datuen argitan, Iturriaga kontrarrean dabilena sumatzen du Bujandak, eta hara hor harekiko honen iritzi goraiagarria. Alegia: «Beraz, hontan datza Iturriagaren erabaki eta apustuaren ausardia eta garrantzia: **euskararen alde jokatzea alderantzizko jarrerak nagusi zirenean**».

Gizon pragmatikoa eta jarrera arrazionalistaren esaneko agertzen digu Iturriaga. Eta, egia da, ekintza-gizona zen, era askotako ihardueren gidari. Hernaniko eskola, bere kabuz eta gidaritzapean antolatu zuen. Eta, eskolarako testu-libururik ez zegoenez, eginbehar honi ere buru egin zion («Arte de aprender a hablar la lengua castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa»; «Diálogos basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa»; «Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos»).

Orain arteko Iturriagaren irudia, gizon ekintzailearen ahalegin txalagarria izan bada, are miresgarriago egiten zait niri bere txosten sonatu bat. Delako «Memoria» txostena, izan ere, zirraragarria da, oraingo honetatik orduko hura ondo gogoan baldin badugu. Euskararen historia sozio-politikoa egiteko unean, nik uste, ohorezko lekukotasun-altxorra bihurtzen zaigu dokumentu hori. Hona, ordea, testu horren ingurumariak ezagutzeko Bujandaren laguntza: «Baina euskararen irakaskuntzaren plangintzari (plangintza bat aurkeztu zuen «Memoria» izenez ezaguna) dagokionez Iturriagak eman zuen bultzadarik handienetako bat 1830. urteko ekainean Arrasaten izan ziren Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Delako Batzar Nagusietan Industria, Merkatalgoa eta Euskara bultzatzeko (harridurazko erabakia alajaina!) Diputazioan batzorde laguntzaile bat sortzea erabaki zen... lehenagotik zetorren asmo hura ekintza bidean jartzera zihoanean. Lehen Kar-

listadak Iturriagak azterturiko Plangintza eta Ideiak bertan behera utzi zituen».

Azkenik, baina ez azken, harribitxiren pareko daukagun «Memoria-ren» gainean jardun nahi genuke. Urte joanen oihartzunak, zoritxarez, ez dirudi bere gaurkotasuna batere galdu duenik. Ikus, bestela: «*Yo prescindo de si es fundada o no la queja, y de si, como pretendo, puede quedar aún, o no mucho que hacer, para sondear el mecanismo de nuestra lengua nativa, y descubrir sus perfecciones, pero lo que veo es que mientras nuestros filólogos están haciendo la anatomía de esta lengua, se nos va escapando de las manos, digámoslo así, y que si nos descuidamos nos vamos a quedar como el cuervo de la fábula hinchados de vanidad y sin queso*» Nork esan testu hau 1830ekoa denik? Atzo bertakoa, eta are gaur goizekoa izan zitekeen, eta ez zuen testuinguruaren desegokitasun zipitzik ere salatuko. Oraindik ere, betiko bide galduan baikabiltza: euskararen **corpusa** (anatomía) gora eta behera ari gara, gorputz-soina usteltzen ari zaigun bitartean. Ez dakit zer funtzio berriez mintzo garen, eskualde oso-beteetan (Iparralde, Nafarroako zenbait haran) euskararen erabateko ordezkapena begien bistan daukagunean. Ulertezina da hor bai: bai orduan eta bai orain. Baina, bien-bitartean, filolokeria nagusi gurean.

Aurreko lerroaldearen egungotasuna txundigarria baldin bazen, zer esan jarraian datorkigun honi buruz? Hemen agertzen da, inon agertzekotan, Iturriagaren oharmen zolia: «*Si los países o provincias, en que las lenguas son diferentes, pasan a ser partes integrantes de un estado o nación, la lengua que adopta por suya el gobierno, será la dominante porque todos los intereses y ventajas se reunirán para cultivarla y generalizarla. Prevalecerá pues sobre todas las demás, enriqueciéndose cada día, y quizá en muchas partes a costa de las otras, y acabará por eclipsarlas hasta hacerlas desaparecer totalmente. Tal es desde algunos siglos a esta parte la posición de la lengua bascongada con respecto a la castellana, y tal la suerte final, que irremediabilmente le va a caer*». Jaun-andreok: nondik atera dute frankismoaren gaitz ahalguztidunaren leloa? Nondik «demokraziaren» kontua tontoak engainatzeko? Nondik elebitasunaren mitoa? Nondik «normalizazioa»? Berriro diogu: hemeretzigarren mendearen hastapenetan mintzo zaigu era distiratsu horretara hernaniar pedagogo. Noiz arte jarraitu behar dugu kolonizazio-komplexu urragarri honekin?

Zergatik geratu naizen aho-bete-hortz Iturriagaren pasarte horrekin? Ez al da mirezgarria orain dela hainbeste urte arazo-giltzarria hain modu zorrotzean hautematea? Zeren, gertatu dena gertatu ondoren eta daukagun gertakari datuak edukirik, oraindik ere, gure arteko

askok entzungor egiten baitio giltzarri horri. Iturriagaren maisutza eredugarria da, izan ere: esanak esan eta idatziak idatzi, hizkuntz arazoa, gurean bezalakoetan, ez da Estatu-arazoa besterik. Gainerako guztia, psikosoziolinguistikaren auzi guztiak, hortik eratorritako efektu hutsalak baizik ez dira.

Estatu-arazoa da euskararen arazoa, eta hark honen aurka erabili dituen aparatua guztien problematika. Uste izatekoa zen moduan, aparatua horien artetik Eskola-aparatuaren betekizun asimilatzailea nabarmentzen digu Iturriagak. Hona, labur eta tinko, bere kritikaren mui-na: *«Allí -eskolan, alegia- se verá tramada una conjuración sistemática y permanente contra la lengua bascongada; allí formadas las oficinas, en que forjan constantemente armas para destruirla, haciendo de los niños otros tantos titanes destinados a destronar a sus madres».*